

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
VITORIA - GASTEIZ 2001

ETXEKO TRATU TXARRAK
ETA SEXU ERASOAK JASATEN
DITUZTEN EMAKUMEEI
LAGUNTZA HOBEA
EMATEKO ERAKUNDE
ARTEKO HITZARMENA

IZENBURUA: "Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko Hitzarmena"

EGILEA: EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier kalea, 36.
01005 Vitoria-Gasteiz, eta
Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza. Nafarroa kalea, 2.
01007 Vitoria-Gasteiz

MAKETATZEAILA ETA KOORDINATZAILEA: Ana Rincón

DATA: 2001eko azaroan

ALE ZENBAKIA: 3.500

DESKRIBATZAILEAK: Tratu txarrak, sexu erasoak, herri administrazioa, ekintza positiboak

IRUDI DISEINUA: Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia

ILUSTRATZAILEA: Iñigo Ordozgoiti

FOTOMEKANIKA: Esda Fotomecánica. Padre Larramendi, 1, 5º. Bilbao

INPRIMAKETA: Industrias Gráficas Marcal, S.A. Enrique Eguren, 3. 48.012 Bilbao

LEGE GORDAILUA: BI-2671-01

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU ERASOAK JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI LAGUNTZA HOBEA EMATEKO ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENA	11
— Zioen adierazpena eta partehartzaileen konpromisoak	13
— Jarduera Protokoloa	19
1. Osasun eremuko jarduera	19
2. Polizia eremuko jarduera	21
3. Eremu judizialeko jarduera	25
4. Abokatu Elkargoen jarduera	27
5. Gizarte Zerbitzuen arloko jarduera	27
Jardueren laburpena	30
— Eranskinak	34
I. Eranskina: Txosten medikurako eredia	34
II. Eranskina: Informazioa jasotzeko eredia	38
III. Eranskina: Bidaltzeko txostenaren eredia	40
IV. Eranskina: Etxeko tratu txarren eta eraso sexualen biktimei laguntzeko baliabideak Erkidegoan	41
AGINTE JUDIZIALAREN KONTSEILU GORENAREN ETXEKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO JARDUNEN GIDA PRAKTIKOA	51
1. Guardiako Epaitegietan egin beharreko jardunak	54
2. Banatzeko arauak	56
3. Auzitegi nahiz epaitegietan biktimari ematen zaion tratua	56
4. Salatzailearen eta salatuaren arteko harremanak	57
5. Zigor arloko epaiketean etxeko indarkeriari aurre egiteko bestelako neurriak eta jardunak	58
6. Ezkontza deuseztatzeko, banantzeko eta dibortziazeko epaiketa zibila eta tratu txarren epaiketa penala koordinatzea	59

AURKEZPENA



Gure gizarteak duen erronkarik garrantzitsuenetariko bat da, hasi berria dugun mende honetan, emakumeek hainbat eratarata pairatzen duten indarkeria errotik eraztea.

Genero indarkeriak bizitzak suntsitzen ditu eta elkarbizitza zapuzten du. Gainera, emakumeen duintasuna urratzen du eta emakumeek bizitza publikoan talde gisa parte hartzeko aukerak murrizten ditu, herritar izatearen eskubide guztiak erabiltzea baldintzatuz.

Ikuspuntu sozialetik, genero indarkeriak herrien garapena eta aurrerapena eragozten du eta pertsonari, gizarteari eta ekonomiari ezin kalkulatzeko eta ezin konponduzko kostuak sortzen dizkie.

Hitzarmen hau, Emakunde bultzatua eta koordinatua, duela 7 urte baino gehiago gure lurralde historikoetako bakoitzean izenpetu ziren Sexu erasoen biktimei laguntzeko koordinazio hitzarmenak osatzera eta hobetzera dator. Gainera, Autonomia Erkidegoan etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntzen diharduten erakunde guztiak barne hartzearen balio erantsia du.

Helburua, horrelako indarkeria pairatzen duten emakumeei ahalik eta laguntza koordinatuena eta osoena ematea da, arlo sanitarioan, polizialean, judizialean eta sozialean. Horretarako, alde batetik, kasu horietan esku hartzen duten profesionalek jarraitu beharreko arauak eta irizpideak ezarri dira eta, bestetik, esku hartzen duten erakundeen arteko lankide-tzarako bide egonkorrak egituratu dira.

Ziur naiz Hitzarmen hau aurrerapauso garrantzitsua dela, Euskadiko erakundeek emakumeen kontrako indarkeriari ematen dioten erantzuna hobetze aldera. Era berean, erakundeen artean lankidetzeta handiagoa eta egonkorragoa izateko oinarriak ezarri ditu, genero indarkeriaren egiturazko eta dimentsio anitzeko arazoari aurre egitearren; arazoak, izan ere, gizarte osoaren ardura eta parte hartzea eskatzen du, eta, bereziki, botere publikoena.

Gasteizen, 2001eko urriaren 30ean.

Juan José Ibarretxe Markuartu
Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria

ETXEKO TRATU TXARRAK
ETA SEXU ERASOAK JASATEN
DITUZTEN EMAKUMEEI
LAGUNTZA HOBEA
EMATEKO ERAKUNDE
ARTEKO HITZARMENA

ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU ERASOAK JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI LAGUNTZA
HOBEA EMATEKO ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Gasteizen, 2001eko urriaren 18an

ZIOEN ADIERAZPENA ETA PARTEHARTZAILEEN KONPROMISOAK

BILDUAK

Juan José Ibarretxe Markuartu jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari gisa

Manuel María Zorrilla Ruiz jauna, Aginte Judizialaren Kontseilu Gorenaren ordezkari gisa

María Ángeles Montes Álvaro, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Fiskaltzaren ordezkari gisa

Ramón Rabanera Rivacoba jauna, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa

Josu Bergara Etxebarria jauna, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa

Roman Sudupe Olaizola jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa

Karmelo Sainz de la Maza Arrola, Eudel/ Euskadiko Udalen Elkartearen ordezkari gisa

José María Muguruza Velilla jauna, Abokatuen Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa

Enrique Tellería Arratibel, Euskadiko Sendagile Elkarte Nagusiaren ordezkari gisa

ADIERAZI DUTE

I.- Emakumeen aurkako indarkeria erabateko erasoak dugu emakumeen duintasun eta osotasun fisiko nahiz moralaren aurka. Hortaz, emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria eta onartezina ere bada.

Era guztietako iritzien arabera, emakumeen aurkako indarkeriaren jatorria emakumeak gizartean bizi duen desberdintasun egoeran datza. Desberdintasun egoera horren adibide ditugu mendetasun ekonomikoa, familia barruan zereginak banatzea (banaketa horretan emakumea oraindik ere mende dagoela pentsatzea), sexu estereotipoak gordetzea, eta abar. Horiek guztiak emakumeenganako erasoak sortarazten dituzten arrazoiak dira.

II.- Emakumeen aurkako bortizkeria bi eratara gauzaturik azaltzen da etxeko tratu txarretan eta sexu erasoetan. Tamalez, adin guztietan, gizarte talde guztietan, eta kultura eta herrialde guztietan sortzen den arazoa da. Hori dela eta, gizarte arazo larria dugu hainbat arrazoiengatik: gure herriari zuzen-zuzenean eragiten diolako (1999an, EAEn etxeko tratu txarrengatik 580 salaketa jarri ziren, eta sexu erasoengatik 289), biktimek izan ohi dituzten arrasto fisiko zein psikikoen larritasunagatik, bai eta kostu sozial nahiz ekonomiko altuagatik ere.

Eraso horien izaerak (batez ere erasoak familian gertatzea eta betidanik gizarteak jarrera horiek onartzea) berarekin dakar biktimak, kasu askotan, babesik gabe egotea. Horrengatik, biktimei babes osoa bermatze aldera (osasun babesa, eta poliziaren, epailearen eta gizartearen babesa), beharrezkoa da botere publikoek elkarrekin esku-hartzea eta ekintza prozedura bateratuak ezartzea. Orobat, horrelako prozedurei esker, erasotzailea errazago jarri ahal izango da epailearen esku, eta horrelako erasoak gertatzean, gizarteak errudunari zigorrak jarri ez zaiola ez du sentituko.

III.- Nazioarteko hainbat agiritan aipatzen da emakumeen aurkako bortizkeriari aurre egiteko botere publikoek esku-hartzearen beharra. Hona hemen agirietako batzuk: Emakumeen aurkako bazterketa mota guztiak deuseztatzeko Nazio Batuen hitzarmena (1979); emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeko Vienako Adierazpena (1993); emakumeari buruzko Pekingo Laugarren Biltzarrean onartutako adierazpena eta plataforma; emakumeen kontrako erasoei buruzko 1986ko ekainaren 16ko Europako Parlamentuaren ebazpena; eta emakumeen aurkako inolako indarkeriarik ez onartzeko egindako Europako kanpainari buruz 1997ko irailaren 16an Europako Parlamentuak onartutako ebazpena.

IV.- Emakundeak egindako eta Eusko Jaurlaritzak 1999ko abenduaren 21ean onartutako Euskadiko Emakumeentzako Ekintza Positiborako III. Plana. Generoaren Ikuspegia Politika Publikoetan argitalpenean, euskal botere publikoek emakumearen aurkako bortizkeriari aurre egiteko ildo bi zehazten dira. Izan ere, planean jasotako neurrietako bat hauxe dugu: «emakumearen aurkako indarkeriazko delituetan parte hartzen duten instantzien artean ezarritako hi-tzarmenak eguneratzea, biktimei laguntza hobea ematearren» (9.3.4.1 ekintza).

Horrengatik guztiagatik, alderdi esku-hartzaileek, nor bere erakundeko ordezkari gisa,

HITZARTU DUTE

Lehenengoa.- Hitzarmen honen xede da etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntza ematen diharduten erakunde publikoen arteko koordinazioa hobetzea, eta Euskal Autonomia Erkidego osoan jardun ildo homogeneoak ezartzea, biktimei laguntza hobea ematearren eta erasotzailea agintaritzea judizialaren esku jartzea bideratzearren.

Bigarrena.- Erakunde izenpetzaileek hitzematzen dute beren jarduera egokitu egingo dutela emakumeen kontrako etxeko tratu txarrek eta sexu erasoek eragindako arau-hauste penalen kasuetan, hain zuzen ere honekin batera doan jarduera protokoloarekin bat etor dadin. Betiere, erakunde bakoitzaren aginpideak eta, bereziki, aginte judizialaren lokabetasuna errespetatuz.

Hirugarrena.- Jarduera protokoloan jasotako neurriak eta jarduera ildoak benetan aplikatu daitezkeen sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Lehendakariak protokoloaren edukia jakinaraziko dio etxeko tratu txarrek eta sexu erasoek eragindako arau-hausteak jazartzen diharduen epaile orori.

Laugarrena.- Orobat jarduera protokoloan jasotako neurriak eta jarduera ildoak benetan aplikatu daitezkeen sustatzeko, gainerako erakunde izenpetzaileek, nor bere aginpideen eremuan, jarduera hauek egingo ditu:

- a) Jarduera protokoloaren edukia jakinarazi erakunde izenpetzailean edo haren menpe lan egiten duen profesional orori, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntzen diharduenari. Horretarako, kasuan kasu egokientzat jotzen diren bitartekoak erabiliko dira: hitzarmenen edukia bidaltzea, jarraibideak, zirkularrak, liburuxkak...
- b) Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen kasuetan jarduteari buruzko prestakuntza planak egin eta aurrera eraman. Garrantzi berezia emango zaie jarduera protokoloaren jasotako jarraibideei, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntzen erakunde izenpetzaile bakoitzean edo haren menpe lan egiten duen profesional orori zuzenduta.
- c) Koordinazio hitzarmen honetako edukiak benetan gauzatzea bermatzeko behar diren giza, gauza eta teknika baliabideak gaitzea.

Bostgarrena.- Segimendu Batzorde bat eratzen da, koordinazio hitzarmen honetako edukiak nola gauzatzen diren begiratzeaz eta balioztatzeaz arduratu dadin.

Segimendu Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Koordinazio hitzarmen honetako edukiak nola gauzatzen diren aztertzea.

- b) Erakunde izenpetzaileei, jarduera protokoloan jasotako neurri eta ildoak benetan gauzatzeko aldera, egoki deritzen ekintza guztiak proposatzea.
- c) Erakunde izenpetzaileek elkarrekin jarduerak egin ditzaten proposamenak egitea, bai eta koordinazio hitzarmen honen xedearen gaitan hainbat erakunderi eragiten dieten esku-hartzeak eta jarduerak koordinatzeko ere.
- d) Jarduera protokoloak hitzarmen honen indarraldian sortzen diren ekimen edo egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea.
- e) Ekitaldi bakoitzaren bukaeran, koordinazio hitzarmen honetako edukiak nola gauzatu diren zaindu eta balioztatze txostena egitea. Txosten horretan, alde batetik, erakunde izenpetzaile bakoitzak jarduera protokoloan jasotako neurri eta ildoak gauzatzeko aurrera eramán dituen ekintzak agertuko dira; eta, bestetik, erakunde bakoitzaren aginpide eremuan protokoloa zenbateraino bete den balioztatuko da. Horretarako, erakunde bakoitzak Segimendu Batzordeari segimendu eta balioztatze txostena bidaliko dio, nor bere aginpide eremuari buruz, Batzordeak horretarako bilera egiteko ezarritako eguna baino hilabete lehenago.
- f) Ematen zaion beste edozein eginkizun.

Segimendu Batzordeko buru Emakundeko zuzendaria izango da; eta, gainera, sailburuorde maila —edo antzekoa— duten pertsonak ere osatuko dute Batzordea, erakunde hauek ordezkatzuz:

- Aginte Judizialaren Kontseilu Gorena.
- Fiskaltza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila.
- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Arabako Foru Aldundia.
- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Eudel / Euskal Herriko Udalen Elkarte.
- Abokatuen Euskal Kontseilua.
- Euskadiko Sendagile Elkarte Nagusia.

Emakundeko Idazkaritza Orokorreko titularrak Batzordeko Idazkaritzako eginkizunak beteko ditu. Norbait falta edo gaixorik denean, kide gazteenak beteko ditu Idazkaritzako eginkizunak.

Batzordeak osoko bilkuretan eta azpibatzerdeetan egin dezake lan gai bereziak aztertzeko. Osoko bilkurari dagokio azpibatzerde bakoitzeko kide izango diren batzordeko pertsonak

izendatzea. Dena dela, azpibatzen diren pertsonak, hitza bai baina botorik ez duten pertsonak, izenda ditzake azpibatzen baita.

Batzordeko osoko bilkurak urtean bi bilkura arrunt egingo ditu, bata ekitaldiaren hasieran eta bestea ekitaldiaren amaieran. Bilkura bereziak ere egin ditzake, lehendakariak edo bilkura osoko bi herenek hala eskatuta. Hartara, eskaria idatziz egin beharko da, eta eztabaidatu beharreko gaien proposamen arrazoitua aurkeztu behar da eskaera horretan. Lehendakariak eskaera egin eta hurrengo hamabost eguneko epean deitu beharko du bilkura berezia, eta gai zerrendan eskatutako puntuak barne sarturik egon behar dute nahitaez, baina lehendakariak beste puntu batzuk ere jar ditzake.

Jarraipen Batzordeko kideei behar den laguntza teknikoa emango zaie euren eginkizuna behar bezala bete dezaten, eta horretarako, Erakunde arteko Talde Teknikoa eratuko da, hitzarmen honetan parte hartzen duten erakundeek horretarako izendatutako ordezkari teknikoek osaturik. Emakundeko ordezkariak koordinaturik, Erakunde arteko Talde Teknikoa urtean birritan bilduko da, gutxienez, proposamenak prestatzeko. Gero, proposamen horiek eztabaidatu egingo dira eta, hala badagokio, Jarraipen Batzordeak onartuko ditu.

Seigarrena.- Hitzarmen honek sinatzen den egunetik 2001eko abenduaren 31raino izango ditu ondorioak, eta hitzarmena besterik gabe luzatuko da, alderdiren batek berariaz uko egiten ez badiu behintzat.

Aurreko guztiarekin ados gaudela adierazteko, hitzarmen hau sinatzen dugu goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Juan José Ibarretxe Markuartu

Román Sudupe Olaizola

Manuel María Zorrilla Ruiz

Karmelo Sainz de la Maza Arrola

María Ángeles Montes Álvaro

José María Muguruza Velilla

Ramón Rabanera Rivacoba

Enrique Tellería Arratibel

Josu Bergara Etxebarria

JARDUERA PROTOKOLOA

1. OSASUN EREMUKO JARDUERA

Biktima bat osasun zerbitzuko kontsultategi batean —larrialdietako zerbitzuan nahiz lehen mailako laguntzako zerbitzuan nahiz espezialistaren kontsultan— sartzen denean, osasun langileek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak argitaratutako *Etxeko tratu txarrei buruzko Protokoloa* (1) liburuan araututakoa bete beharko dute.

Profesional sanitarioaren jokabidea, lehenengo eta behin, hauxe izan behar da: eraso bat dela eta bere kontsultara jo duen biktimak izan ditzakeen kalte eta lesio fisikoak eta psikikoak asistitzea.

Jokabide hori hasterakoan, bestelako jarduera sanitarioetan egiten den bezala, kasuari dagokion historia klinikoa irekiko da, edo historian asistentzia-datuak jasoko dira, historia irekita dagoenean.

Sofritutako lesioen eta kalteen eraginaren eta norainokoaren balorazio medikoa egingo da, eta historian jasota geratuko dira.

Hori egin ondoren, kasuari dagozkion jokabide terapeutikoen plana hasiko da (larrialdietako zerbitzura deribatzea, ingresua, oharrak, beste espezialista batengana deribatzea, hurrengo azterketaren zita ematea, garraio urgentea eta abar).

a) Tratu txarreatatik kalte fisikoen edo psikikoen egiaztapena nahiz susmoa dagoenean, dokumentu honen I. Eranskinan agertzen den txosten-eredua bete behar da (2), txosten-eredu horren barruan Guardiako Epaitegira bidaltzeko ofizioa dagoelarik. Historia klinikoa bidalketa-ofizio horren kopia eta txostenaren egiaztapena geratuko dira.

Txostenean biktimaren filiazio-datuak jasoko dira; gainera, gertakizunak deskribatuko dira, kolpatutako biktimak adierazten dituen moduan. Egiaztapenik egonez gero, kolpatutako pertsonaren kolpaldiarekin loturiko aurrekari interesgarriak islatuko dira. Txostenari lesioen deskripzio zehatza eta biktimaren egoera lotuko zaizkio. Azkenik, diagnostikoa eta preskribatutako tratamendua jasoko dira.

(1) Etxeko tratu txarrek eragindako kalte fisiko, psikiko zein beste motatako kalteak, sexu-erasoak barne, gertatzen direnean, EAEn jarraitu beharreko prozedurak jasotzen dira Protokoloan. Modu berean, gomendio batzuk jasotzen ditu honelako kasuetan jarduera klinikoa hobetzeko, Lehen mailako Laguntzan, Ginekologia eta Obstetrizian, eta Pediatrían (Osasun Saila, *Etxeko tratu txarrei buruzko Protokoloa*, 2000).

(2) Txosten-eredu hori gure EAEko esparru sanitario osoan aplikatu behar da, eta historia klinikoetarako ohiz erabil-tzen diren ereduaren barruan egon behar du. Eredu horiek zentro bakoitzeko aginte-organismoak onartzen dituenak dira.

Txostena bete ondoren, Epaitegira bidaliko da ahalik eta arinen beharrezko jokabide judizialak edo auzitegikoak hasteko balio dezan. Medikuek biktimari hori guztia adierazi eta txostenaren kopia emango dio.

b) Eraso sexuala gertatu berria denean, biktima ahalik eta lasterren ospitale hurbilenera bidaliko da, garbiketarik egin gabe eta arroparik aldatu gabe (3); besterik da tratamendu medikoa berehalak behar izatea, kasua larria izateagatik edo bizitza arriskuan egoteagatik.

Lehen aipatutako larritasunik edo bizitza-arriskurik ez badago, ospitaleak partidu judizialeko auzitegiko medikuari deitu eta itzarongo dio (4). Medikuek horrek kasuari dagokion espezialistarekin batera beharrezko jokabideak burutuko ditu. Ospitaleko medikua bere funtzio asistentzialean saiatuko da eta auzitegiko medikua, berriz, delituaren funtzio ikertzailean (lesiorik dagoen ikusten, lagin biologikoak eta ez-biologikoak biltzen...).(5)

Dagokion tratamendua ezarri eta gero, pertinentea balitz, eta medikuaren egitekoa behin amaituz gero, txosten bat egin behar da, aurrerantzean biktima atendituko duen medikuari emateko. Txostenaren helburua zera da, ospitalean preskribatutako tratamenduari jarraipen egokia egitea. Txostenean:

1. argi eta garbi geldituko da zein tratamendu edo zeintzuk kontrol egin behar zaizkion;
2. ez dira agertuko biktimak izandako erasoaren ezaugarri eta zehaztasunei buruzko eta prozesuaren gainerakoei buruzko alperreko datuak;
3. aipatu egingo da ebitatu behar dela, ahal den neurrian, agindutako tratamenduaren arrazoiei buruzko galderak pazienteari egitea.

Kontsulta amaitu baino lehen, tratu txarra edo sexu-erasoa izandako biktimari ondoko gomendioak emango zaizkio: dituen eskubideak eta zentro sanitarioen beraien bidez (ospitaleko edo Lehen Mailako Atentzioko gizarte-laguntzailearen bidez) eskura dituen gizarte- eta babes-neurriak. Gainera, behar izanez gero, Gizarte-zerbitzuekin kontaktu urgentea erraztuko zaio, dokumentu honetan baliabide asistentzialen idatz-zatien bildutako telefonoak eta helbideak emanez.

(3) Felazioaren kasuan, garrantzitsua da likidorik edo janaririk, ahal bada, ez hartzea, ospitalean biktimari miaketa egin baino lehen.

(4) Urgentziako kontaktu hori errazteko, beharrezkoa da profesional horien telefono-zenbakia bistan eta eguneratuta egotea.

(5) Zeozergatik auzitegiko medikuak ezin izango balu bertara joan, "Sociedad Española de Ginecología y Obstetricia" (SEGO) delakoaren gomendioei jarraituko zaie.

Gizarte-zerbitzuek tratu txarra izandako pertsonari baliabide eta programa eskuragarrien informazioa emango diote.

2. POLIZIA EREMUKO JARDUERA

Ertzaintzako langileen eta tokian tokiko poliziaren jarduera honakoa izango da etxeko tratu txarrak edo sexu erasoak jasan dituen baten aurrean: Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko sailburuordeak *sexu erasoak* (3. zk.) eta *etxeko tratu txarrak* (48 zk.) *gertatzen direnean izan beharreko portaerei buruz* emandako Arauetan, hurrenez hurren, zehaztutako printzipioak eta jarraibideak jarraitu beharko dituzte, eta batez ere, ondorengo jarraibide hauek:

AURREA HARTZEKO JARDUERAK

Aurrea hartzeko jarduerak honako helburua dute, ezer baino lehen: emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideak gerta baino lehen antzematea eta jokabide horiei aurrea hartzea.

LARRIALDIARI KASU EGITEA

Biktimak hala eskatuz gero edo beste pertsona edo erakunderen batek salaketa jarritz gero, polizia biktima dagoen etxera edo lekura joango da, eta bertan geldituko da behar den denbora guztian.

Biktimak lesiorik badu eta osasun laguntzarik behar badu, edo lesioak dituela uste bada, nahiz eta ez ikusi, poliziak dagokion medikuarengana eramango du biktima. Ahal dela, polizia ekipoan emakume bat egonen da, gutxienez. Era berean, lesioen deskribapenaren parte, ahalik eta zehatzena, eskatzeko eskatuko zaio, salaketa egitean aurkezteko.

Sexu eraso egin berria denean, gertuen dagoen ospitaleko larrialdietara eramango dute. Eraso Bilboko barruti judizialean gertatzen denean, biktima Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen zerbitzu klinikora ere eraman daiteke, lesio larriak dituztenean salbu. Izan ere, zaintzako langileak 24 orduan daude zerbitzu horretan.

Biktimari ez garbitzeko eta arroparik ez aldatzeko esan behar diote, eta ez jateko eta ez edateko ezer aho bidezko erasoak gertatu badira. Ospitalera eramanez gero, polizia ekipoak aldez aurretik auzitegiko medikuari deitu behar dio ospitalean agertzeko mediku azterketa egin dezan eta laginak har ditzan. Era berean, auzitegiko medikuari eskura dituzten gertakizunari buruzko datu guztiak emango dizkiote.

Ez diote inolako aitorpenik hartuko, harik eta biktima osasun arloko langileek aztertu arte eta haren behar pertsonalei erantzun arte.

SALAKETA JASOTZEA

Ezer baino lehen, salaketa jartzeak nolako ondorioak dakartzan esango zaio biktimari. Sexu askatasunaren aurkako delituetan, gainera, salaketa jarri beharra dagoela esango zaio, judizialki ustezko erasotzailearen atzetik ibiltzeko.

Salaketa jasotzerakoan, kontuan izan beharko dute biktimaren egoera emozional berezia. Hartara, begirune eta lehentasun bereziko tratua emango diote, haren egoera pertsonala kontuan hartuta.

Biktimaren inguruan segurtasun giroa sortzen saiatu behar dira. Horretarako, ahal dela, salaketa emakumezko agente batek jasoko du, leku eroso eta pribatu batean, inolako etenaldirik izan ez dezan eta biktimaren intimitatea babes dadin. Era berean, behar diren neurriak hartu behar dira biktimak ustezko erasotzailearekin kontakturik izan ez dezan.

Aitorpena hartzean, honako puntuak hartuko dira kontuan:

1. Biktimak salatuarekin duen ahaidetasuna (ezkondua, izatezko bikotea, bestelako ahaidetasuna, eta abar), etxe berean bizi diren familiako kideak eta bakoitzaren baliabide ekonomikoak eta lana.
2. Gertakizunari buruzko deskribapen xehea. Deskribapen horretan honako hau adierazi beharko du, gutxienez: erasoaren aurrekari hurbilak, eraso nola egin den, erasoan erabilitako tresnak edo bitartekoak eta erasoaren eraginak.
3. Aurreko eraso edo tratu txarrak, salaketarik jarri zen adieraziz. Aldez aurretiko salaketarik bada, zein aginteren aurrean jarri den adieraziko da eta, posible balitz, txosten polizialari gehituko zaizkio aurreko salaketa horien ondorioz eginiko jarduerak. Eraso edo tratu txarrei dagokionez, aldez aurretiko salaketarik ez bada, gertatutako eraso edo tratu txar haiei buruzko aitorpen xehea jasoko da, aurrerako esandako eran, bai eta medikuen parterik baden aurreko osasun laguntzetan ere. Baldin eta biktimak ez badu lehenago izandako erasorik salatu, ez salatzearen arrazoia beldurra izan den galdetuko zaio, eta, horrela bada, ea erasotzaileak edo haren ekintzek behartu zuten ez salatzea.
4. Gertakarian izandako lekukoak eta erreferentziakoak, eta batez ere erasoak ikusi edo jasan dituzten familiako kideen izen-abizenak adieraziko dira.

Aitorpena behar den aldioro etengo da eta, hala badagokio, atzeratu egingo da biktima aitortzeko gauza ez dela uste denean. Salaketa jartzea amaitu ondoren, salaketaren egiaztagiri bat emango zaio biktimari (6).

INFORMAZIOA ETA GIZARTE ZERBITZUETARA BIDERATZEA

Biktimari bere eskubideei eta dauden gizarte baliabideei buruzko informazioa emango zaio idatziz. Zehazki, ondorengo eskubideak gauzatzeko aukerari buruzko informazioa emango zaio: prozesu penalean parte izatea, babes pertsonala izatea (poliziaren babesa, erasotzailea urrutzea, gaiztakeriazko deien sarera konektatzea...), banantze zibilerako behin-behineko neurriak eskatzea eta, hala badagokio, eskatutako baldintza legalak betez gero, doako justizia Abokatuen Elkargoetako Orientabide Juridikoen Zerbitzuen bidez. Era berean, 35/1995 Legean araututako laguntzak biktimei laguntzeko zerbitzuen (BLZ) bidez eskatzeko aukera duela esango zaio, eta horrelako arazoetarako laguntza espezializatutako baliabideak izateko aukera duela (harrera etxebizitzak, laguntza juridikoa eta psikologikoa, laguntza ekonomikoak...) BLZ edo gizarte zerbitzuen bidez.

Biktimari ematen zaion informazioaz gain, kasua Oinarriko Gizarte Zerbitzura, Larrialdietako Gizarte Zerbitzura, Berdintasuneko Zerbitzua edo Biktimari Laguntzeko Zerbitzura bideratuko da. Poliziak berak bideratuko du kasua aipatutako zerbitzuetara Agintaritza eta Kontrol Zentroari eskatutako telefono eta helbideak erabiliz (ikus IV. eranskina).

Norabait eraman behar izanez gero (gizarte zerbitzuak, larrialdietako zerbitzuak, sendikoen edo lagunen etxebizitza, harrera etxebizitza, eta abar), ahal dela, ezaugarririk gabeko ibilgailu ofizial batean eramango da, eta polizia ekipoan emakumezko agente bat egon beharko du, gutxienez.

Nahiz eta bortxakeri seinaleak izan, biktimak ez badu gizarte zerbitzuen laguntzarik nahi, dagokion diligentzia beteko da, laguntzari uko egiten diola adieraziz, eta gertakizunei buruzko komunikazio bat igorriko zaie Gizarte Zerbitzuei, familian adingaberik baden adieraziz, dagozkion erabakiak har ditzan.

Biktimaren eta salaketa jasotzerakoan lagundu dion polizia ekipoaren arteko etengabeko komunikazioa ahalbidetzeko, harremanetarako telefono bat emango zaio, berehalako laguntza pertsonalizatua izan dezan. Horrela, biktimak honako hau esan ahal dio poliziarri: erasotzailearen kontra hartutako kartzelaratzeko neurriak bertan behera gelditu direla, edo erasotzaileak

(6) Hala ere, Herrizaingo Siletik, dagozkien Erakundeekin, beharrezkoak diren gestioak egingo dira etorkizunean halako kasuetan, salaketaren kopia ematerik balego aztertzeko. Izan ere, salaketa izatea inportantea da instantzia ezberdinetan aitortza bera errepikatu beharrak emakumerengan eragin dezakeen bigarren mailako biktimizazioa ekiditzeko.

hautsi egin dituela agindutako urruntze neurriak, poliziak dagokion neurri prebentiboak har ditzan. Bestalde, poliziak biktimaren ordezkariari edo, hala badagokio, biktimari berari ikerketak nola doazen adieraziko dio, ikerketaren emaitza arriskuan jartzen ez den bitartean. Horretarako, biktimari harremanetarako helbide edo telefono bat eskatuko zaio, han lokalizatu ahal izateko.

IKERKETA

Ahalik eta azkarren eta zehatzen egingo da *in situ* egiaztatzea eta ikertzea, hau da, arau hauste penala eta egilearen erantzukizuna egiaztatu ahal izateko behar diren egiaztatze eta ikertze ekintzak egingo dira: begizko ikuskapena, lekukoak, biktimari haren baimenarekin argazkiak egitea, eta abar.

Biktimari adieraziko zaio zer-nolako garrantzia duen ikertutako gertakizunekin zerikusia duten gauzak eta elementuak emateak, ahalik eta azkarren argitzeko.

Biktimak salaketa bat baino gehiago jarri badu, azkeneko salaketaren ondorioz egindako ekintzak eraman beharko dira aurrera, ordura arte egindako eginbideak ahaztu gabe. Horrelakoetan, txosten eginbide bat prestatuko da. Txosten horretan ordura arte izapidetutako eginbideen laburpena jasoko da, zein epaitegira bideratu diren adieraziz.

Era berean, egoera arriskutsuari buruzko datuak dituzten txosten eginbideak jasoko dira argiketetan, epaitegiak erasotzaileei kautelazko neurriak aplikatzea komeni den baliozta dezan.

Kautela eta prebentzio moduan, ustezko erasotzaileak arma lizentziarik edo baimenik duen jakin beharko da. Arma lizentzia edo baimena badu, eskura dituen su armak eta dagokien dokumentazioa bere borondatez poliziaren bulegora eramatea eskatuko diote ustezko erasotzaileari. Bere borondatez entregatu nahi ez baditu, epaileari jakinaraziko zaio, dagozkion neurriak har ditzan. Era berean, Guardi Zibilaren arma Ikuskaritzari ere jakinaraziko zaio, baimena baliogabetzeko dagokion administrazio espedienteari hasiera eman behar zaion jakiteko.

3. EREMU JUDIZIALEKO JARDUERA (7)

Hitzarmen honetan aipatzen diren gaietan aginpidea duten Botere Judizialeko organoak erabateko askatasunez jardungo dute eta Legeak esandakoa bakarrik onartuko dute. Hala ere, ondorengo iritzi teknikoak kontuan hartu beharko dituzte:

a) Biktimak lesioak baditu eta, gainera, osasun laguntza behar badu, edo zauriak dituela uste bada, nahiz eta agerian ikusi ez, epaitegiko titularrari berehala jakinaraziko zaio emakumearen egoera. Eta gainera, komeni da ondorengo ekintza hauek aurrera eramatea:

- Polizia judizialak dagokion mediku zerbitzura eraman behar du emakumea. Sexu erasoak gertatu bada, ospitale hurbilenera eramango dute eta biktimari esango diote ez garbi-tzeko eta arroparik ez aldatzeko, eta ez jateko eta ez edateko ezer aho bidezko erasoak gertatu badira. Erasoak Bilboko barruti judizialean gertatzen denean, biktima Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen zerbitzu klinikora ere eraman daiteke, lesio larriak dituztenean salbu. Izan ere, zaintzako langileak 24 orduan daude zerbitzu horretan.
- Auzitegiko medikua osasun zentrorra eramango dute, frogak ziurtatzeko eta laginak jaso ahal izateko.

b) Emakumeak osasun laguntzarik behar ez badu, salaketa leku pribatu batean hartzea komeni da. Izan ere, biktimaren egoera emozional berezia eta egoera pertsonala kontuan hartuta, begirune bereziko tratua eta lehentasun osoa eman behar zaio.

Salaketan gertakizunari buruzko ahalik eta informazio gehien ematea aholkatzen da, behar diren autoak edo eginbideak pilatu ahal izateko, eta beste honako hauek ere jasotzeko: lehenagoko erasoak, egon badira, tratu txarren maiztasuna, eta salatu bazituen non eta noiz aurkeztu zituen salaketak, seme-alabak ere jasan dituzten eta erasotzaileak armarik ba ote duen.

Oso garrantzitsua da medikuak edo auzitegi medikuak berehala mediku azterketa egitea. Medikuek dagokion txostena prestatuko du, eta gera daitezkeen lesio psikologikoak ere adierazi behar dira bertan.

Era berean, komeni da Biktimari Laguntzeko Zerbitzuei, dagozkien Gizarte Zerbitzuei edo, hala badagokio, Talde Psikosozialei txosten psikologikoa eta familia eta gizarte egoeraren balioztapena eskatzea.

(7) Atal honetan adierazitakoa osatu beharra dago, Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrek 2001eko martxoaren 21ean onetsi zuen *Informe sobre la problemática jurídica derivada de la violencia doméstica* txostenean agertzen den *Guía Práctica de actuación contra la violencia doméstica* agiriarekin. Gida hau argitalpen honen "Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorren etxeko indarkeriari aurre egiteko jardunen Gida praktikoa" izeneko atalean jasota dago.

Era berean, komeni da biktimari ongi adieraztea nolako ekintza judizialak dituen eskura. Horretarako, eskaintza hori informazio orri batean emango zaio, eta Erkidegoko Biktima Laguntzeko Zerbitzuen helbidea erantsiko da bertan. Horiez gain, zerbitzu horiekiko harremanak erraztea ere aholkatzen da. Zerbitzu horietan eskubideei eta egin beharreko prozedura judizialei eta izapideei buruzko informazioa eta aholkuak emango dizkiote, eta, batez ere honako eskubideak eska ditzakeela esango diote: erasotzailea beragandik urruntzea, banantze zibilerako behin-behineko neurriak, eta, hala badagokio, Abokatuen Elkargoko Argibide Juridikoetako Zerbitzuetatik doako justizia jasotzea eta 35/1995 Legean araututako laguntzak eskatzea. Era berean, komeni da emakumeari esatea horrelako egoerarako Erkidegoan badirela doako gizarte baliabideak (harrera etxeak, argibide juridikoetako zerbitzuak, biktimentzako eta eraso-tzaileentzako laguntza psikologikoko programak eta laguntza ekonomikoak). Eta gainera, dagokion gizarte zerbitzuekiko harremana erraztuko zaio, baliabide horiek jaso ahal ditzan.

Inputatuak aitortpena egin ondoren, komeni da epaileak babes neurriak har ditzan, Prozedura Zibileko Legeko 13. artikuluan araututakoarekin bat, aldez aurretik egoki irizitako txostenak eta irizpenak prestatuta. Instrukzioko epaileak aginpidea duen poliziar hartutako babes neurrien edo kautelazko neurrien berri emango die.

Era berean, komeni da ustezko erasotzailea atxilotuari laguntza emateko zerbitzuarekin harremanean jartzea, zerbitzu horrek kasu hori aurrera eraman ahal izateko eta, hala badagokio, erasotzaileentzako laguntza psikologikoaren programa batera bidaltzeko. Programa horiek hiru probintzietan daude. Araban: Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, tel: 945 151 015; Bizkaian: Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila, tel: 944 206 900; Gipuzkoan: Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Saila, tel: 943 482 576 eta 900 434 343).

Komeni da epaileak, bere aginpidez baliaturik, prozedura azkartzeko aukera kontuan har-tzea, gertakizunean delituren bat egin bada, eta ahozko epaiketa lehenbailehen jartzea, falta bat bada.

Jarduera ildo hauen baitan, komeni da epaitegiak edo auzitegiak falta judizioan doako ofizioko abokatu izenda dezan epaiketa horretara beste alderdiren bat abokatuarekin doanean.

Azkenik, komeni da biktimari berehala jakinaraztea nolako neurriak hartu diren erasotzailearen aurka eta zenbateraino eragin diezaioketen berari (kautela neurriak hartu edo bertan behera utzi, askatasun gabezia etetea edo lagatzea, eta abar).

4. ABOKATU ELKARGOEN JARDUERA

Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Abokatuen Elkargoek ondorengo jarraibideak jarraitu beharko ditu etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak direnean:

Doako ofizioko abokatua izendatzea dagokionean, espedientea izapidetzeari emango zaio lehentasuna, Doako Laguntza Juridikoko Probintzia Batzordera lehenbailehen igortzeko, eta lagunduko dion abokatua izendatuko du berehala, Batzorde horrek erabakiko duena gorabehera.

Biktimak, aldi berean edo geroago, banantzeko edo dibortziazteko prozedura bideratzeko legelarien laguntza eskatzen badu, dagokion abokatu elkargoak beharrezko guztia egin behar du, tratu txarren ondorioz eginiko prozedura penalean biktimak izandako abokatu bera izenda dezaten. Ezinezkoa bada, abokatuen elkargoak ahalegin guztiak egin behar ditu koordinazio eraginkorra izan dezaten prozedura penalean biktima defendatzeko izendatutako profesionalak eta banantzeko edo dibortziazteko prozeduran defendatzeko izendatzen dutenak (bai ofiziozko txandaz, bai bezeroak aukeratuta).

Abokatuen elkargoek, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailarekin batera, ofiziozko abokatuak izendatzeko txanda berezi bat —prestakuntza berezia duten profesionalen osatua— ezartzeko bide guztiak jarriko dituzte. Txanda horretatik izendatuko dira bai familia prozesuak aurrera eramateko behar diren abokatuak, bai protokolo honetako gai diren arau-hausteagatik (delituak eta faltak) prozedura penalean behar direnak. Txanda bereizitza hartuko dira. Horrez gain, hiru probintzietako abokatuen elkargoak ere protokolo honetako gaietan eskudunak diren organismo eta toki eta foru erakundeekin lankidetzan arituko dira.

5. GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO JARDUERA

Etxeko tratu txarren biktima batek Euskal Autonomia Erkidegoko edozein Oinarrizko Gizarte Zerbitzura jotzen duenean, honako urratsak egingo dira:

a) Biktimak lesiorik badu eta osasun laguntzarik behar badu, edo nahiz eta ez ikusi, zauriak dituela uste bada, dagokion medikuarengana eraman beharko dugu. Era berean, lesioen deskribapenaren parte, ahalik eta zehatzena, eskatzeko esango zaio biktimari, horrela salaketa egitean aurkeztu ahal izateko.

Sexu eraso egin berria bada, lehenengo SOS-Deiak jakinaren gainean jarri, horrela beharrezko gestioak abian jartzeko. Ondoren, biktima ospitale hurbilenera eraman, eta ez garbitzeko eta arroparik ez aldatzeko esan. Orobat, ahotik erasoak egon badira, biktimak ezingo du ez jan, ezta edan ere. Eraso Bilboko barruti judizialean gertatzen denean, biktima Auzitegiko Medikuntzako

Euskal Erakundearen zerbitzu klinikora ere eraman daiteke, lesio larriak dituztenean salbu. Izan ere, zaintzako langileak 24 orduan daude zerbitzu horretan.

Mediku azterketa egiteko eta laginak hartzeko biktima ospitalera eramanez gero, alde aurretik auzitegiko medikuari deitu behar zaio. Auzitegiko medikuari ospitalera joateko esango zaio eta, era berean, ospitaleko medikuei gestio horren berri emango zaie. Orobat, auzitegiko medikuari eskura dituzten gertakizunari buruzko datu guztiak emango dizkiote.

b) Biktimak osasun laguntzarik behar ez badu, lehenasunezko laguntza eman, betiere biktimaren egoera emozional berezia kontuan izanda.

Emakumearen segurtasun edo osotasun fisikoa arriskuan badago, SOS-Deiak zerbitzura, Ertzaintzaren komisariara edo tokian tokiko polizia deitu laguntza eske. Poliziari eskatu Oinarrizko Gizarte Zerbitzura, edo biktima babesteko toki egokienera, joateko.

Lehenengo elkarrizketaren helburuak: biktimari laguntzea, eskuragarri dituen baliabideak eta arreta jakinaraztea, eta arazoak dituen irtenbideak azaltzea. Biktimari bera eta bere seme-alabak babestuta egoteko ahal diren baliabide guztiak erabiliko direla esan. Emakumea lasai-tzen saiatu, eta laguntza eta segurtasuna eman.

Informazioa II. eranskinaren arabera bilduko da. Egintzak agintari judizialari jakinarazi, eta horretarako III. eranskineko bidaltze txostena erabili. Emakumea beste instantzia batzuetara bideratzen dugunean ere erabili behar dugu bidaltze txosten hori.

Laguntza juridikoa emateko zerbitzuetako laguntza kualifikatuaz gainera, beharrezkoa da gizarte zerbitzuetako langileek biktimari beren eskubideei eta egin beharreko prozedura judizialei eta izapideei buruzko informazioa eta aholkuak ematea, eta batez ere honako eskubideak dituela esatea: gertatutakoa poliziaren aurrean edo zaintzako epaitegian salatze eskubidea, erasotzailea beragandik urruntzea eskatzeko eskubidea, banantze zibilerako behin-behinekoak bakarrik diren neurriak eskatzeko eskubidea, eta, hala badagokio, Abokatuen Elkargoko Argibide Juridikoetako Zerbitzuetatik doako justizia jasotzeko eta 35/1995 Legean araututako laguntzak eskatzeko eskubidea.

Era berean, komeni da emakumeari esatea Erkidegoan badirela tratu txarretarako eta sexu erasoetarako doako gizarte baliabideak:

- Harrera etxeak.
- Tratu txarrak edo sexu erasoak izan dituzten biktimentzako laguntza psikologikoko programak.
- Laguntza juridikorako zerbitzuak.
- Biktima laguntzeko zerbitzuak.
- Abokatuen elkargoen argibide juridikoetako zerbitzuak.

- Erasotzaileentzako laguntza psikologikoko programak.
- Laguntza ekonomikoak.

Egoera gaitzitzeko eskuragarri dauden baliabideak erabiltzea zein garrantzitsua den nabarmenduko zaio emakumeari. Batez ere laguntza psikologikoko programek duten garrantzia aipatuko dugu.

Indarkeriaren biktimekin lan egiten duen erakunderen bat hurbil badago, eta erakunde horien lanak duen garrantzia kontuan hartuta, emakumeari erakunde horrekin harremanetan jar-tzeko laguntza emango diogu. Horri esker, emakumeak autonomia eta autoestimua indartuko ditu, eta erasotzaileek biktimei ezarri ohi dieten isolamendua saihestuko du.

Gizarte zerbitzuetako langileak kasuaren segimendua egingo du prozesu guztian biktimei laguntzeko zerbitzu eta programekin batera, emakumeari eta haren seme-alabei bizitza normala berreskuratzen laguntzeko.

JARDUEREN LABURPENA

OSASUN ARLOKO JARDUERA

1. ETXEKO ERASO FISIKO NAHIZ PSIKIKOAK

- Batik bat biktimari lagundu, eta mediku azterketa osoa egin.
- Laguntza eragin duten egintzak azaltzean, adierazi erasoaren data, ordua eta tokia, biktimak adierazitakoaren arabera, bai eta nabari zaion tratatu txar fisikoa, psikikoa edo bestelakoa.
- Berehala laguntza espezializatura bideratu, behar badu.
- Biktimari aholku ematea, dituen eskubideei buruz eta osasun zentroko zerbitzuen bidez eskura dituen gizarte eta babes neurriei buruz. Eta, behar izanez gero, gizarte zerbitzuekin harremanetan jarri, larrialdiko laguntza eman diezaioten.
- Auzitegira tratatu txarren mediku txostena bidali. Kopia bat historia klinikoan gorde, eta beste bat biktimari eman.

2. SEXU ERASOAK

- Batik bat biktimari lagundu, eta lesioen lehenengo balioztapena egin.
- Lesio larriak direnean eta bizia arriskuan dagoenean izan ezik, berehala bideratu ospitale hurbilenera, garbitu gabe eta arropa aldatu gabe.
- Auzitegi-medikuari abisatu, ospitalera joan dadin.
- Espezialistak eta auzitegi-medikuak azterketa egin diezaiotela, elkarrekin.
- Agindutako tratamenduaren segimendua egingo duen medikuarentzako txostena egin.
- Biktimari aholku ematea, dituen eskubideei buruz eta osasun zentroko zerbitzuen bidez eskura dituen gizarte eta babes neurriei buruz. Eta, behar izanez gero, gizarte zerbitzuekin harremanetan jarri, larrialdiko laguntza eman diezaioten.

POLIZIA ARLOKO JARDUERA

- Biktima dagoen etxera edo tokira joan, eta han egon behar den denbora guztian.
- Lesiorik izanez gero, mediku zerbitzura lagundu, eta polizia taldean emakumeren bat egon dadin saiatu.
- Sexu erasoa gertatu berria baldin bada, biktima ospitale hurbilenera eraman; edo, egoki baldin bada, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko zerbitzu klinikora (Bilbo). Adierazi egin behar zaio ez aldatzeko arropaz, ez garbitzeko, eta, ahoko erasoa izan badu, ez dezala edan, ez eta jan ere.
- Bere beharrianak asetakoan, adierazpen xehekatua hartu, biktimaren egoera emozional berezia kontuan izanda.
- Salaketa aurkeztearen ondorioak jakinarazi, eta salaketaren egiaztagiria eman.
- Dituen gizarte eskubide eta baliabideak idatziz jakinarazi. Horiez baliatzeko laguntza zerbitzuekin harremanetan jarri. Eta, behar badu, biktima zerbitzu edo baliabide horietara eraman.
- Ikerketako eta *in situ* egiaztapeneko ekintzak lehenbailehen eta zehaztasunik handienaz egin, aurretik salaketarik izan den kontuan hartuta.
- Halakorik izanez gero, ustezko erasotzaileari armak bere borondatez eman ditzala eskatu. Uko egiten badio, agintari judizialari jakinarazi.
- Ikerketen egoerari buruzko informazioa biktimei eman, eta baita harrera pertsonala eta bat-batekoa ahalbideratuko duen telefono zenbaki bat.

ARLO JUDIZIALEKO JARDUERA

Jurisdikzio eginkizunak lokabetasunez egin daitezzen laguntzeko, egoki da:

- Lesiorik izanez gero, honako gai hauek ebatzea:
 - Biktima dagokion mediku zerbitzura eramatea, edo Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko zerbitzu klinikora (Bilbo). Adierazi egin behar zaio, sexu erasorik izan badu, ez duela arropaz aldatu edo garbitu behar; eta, ahoko erasoak izan badu, ez dezala edan, ez eta jan ere.
 - Auzitegi-medikua osasun zentrorra etorrarazi.
- Salaketa leku pribatuan jaso, biktimaren egoera emozional berezia kontuan izanda eta al bait informazio gehien agerrarazi, egoki bada autoak edo diligentziak metatzea errazteko.
- Txosten psikologikoa edo familiako egoeraren balioztapena eskatu Biktimari Laguntzeko Zerbitzuei, Gizarte Zerbitzuei edo, hala badagokie, Talde Psikosozialei.
- Ekintzak egiteko eskaintza biktimak ulertzeko moduan egin, argibideen oharra emanez.
- Biktima harremanetan jarri biktimari laguntzeko zerbitzuekin.
- Biktima babesteko neurriak hartzea komeni den balioztatu.
- Ustezko erasotzailea harremanetan jarri atxilotuari laguntza emateko zerbitzuekin.
- Prozedurak arin daitezkeen balioztatu, data jartzeko ahalmenaz baliatzean.
- Ofiziozko abokatua —doakoa— izendatzea komeni den balioztatu, beste alderdiek legegarien laguntza baldin badute.
- Biktimari, berehala, erasotzaileari buruz hartu diren eta biktimari eragin diezaioketen neurriak jakinarazi.

ABOKATU ELKARGOEN JARDUERA

- Egoki denean, lehentasuna eman doako justiziako espedientea izapidetzeari, eta berehala izendatu abokatua, nahiz eta gero Doako Laguntza Juridikoko Probintzia Batzordeak ebazpena eman.
- Bideak jarri legelari bera izendatzeko bai prozedura penalerako eta bai prozedura zibilerako.
- Bideak jarri, dagokien erakundeen laguntzaz, halako delitu eta faltei loturiko prozedura penal eta zibiletarako ofiziozko txanda berezia ezartze aldera.

GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO JARDUERA

- Lesiorik izanez gero, biktimari mediku zerbitzura laguntzen saiatu.
- Sexu eraso gertatu berria baldin bada, SOS-Deiak zerbitzura deitu eta emakumeari ospitale hurbilenera lagundu; edo, egoki baldin bada, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko zerbitzu klinikora (Bilbo). Biktimari adierazi egin behar zaio ez aldatzeko arropaz, ez garbitzeko, eta, ahoko eraso izan badu, ez dezala edan, ez eta jan ere.
- Osasun laguntzarik behar ez bada, lehentasunezko laguntza eman, betiere biktimaren egoera emozional berezia kontuan izanda.
- Biktimaren segurtasuna edo osotasuna arriskuan baldin badira, poliziaren babesa eskatu.
- Lehenengo elkarrizketaren helburuak: biktimari laguntzea, dauden baliabideak jakinaraztea, eta arazoak dituen irtenbideak azaltzea.
- Informazioa jaso, ereduari (II. eranskina) jarraituz.
- Egintzak agintari judizialari jakinarazi, bidaltze txostena (III. eranskina) erabiliz.
- Emakumeari, funtsean, dituen eskubideak jakinarazi, bai eta abiaraz ditzakeen izapide eta prozedura judizialak ere.
- Dagozkion gizarte zerbitzuak jakinarazi eta, behar badu, haietaz baliatzen lagundu.
- Biktima arlo horretan diharduten elkarteekin harremanetan jarri.
- Prozesu osoan, kasuaren segimendua egin.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: TXOSTEN MEDIKURAKO EREDUA

Ni (izen-abizenak:) naiz, Medikua, (non:)
.....-n kolegiatuta, nire kolegio-zk da eta profesional gisa dihardudan lan-
zentroa/lan-lekua hauxe da:).....
.....
.....
.....

Datu horiek horrela, ondoko hau

AZALTZEN DIZUT: gaur, (ordua:).-----etan, (zentroaren/lantokiaren izena:)
..... izeneko Kontsultategian/Osasun-
zentroan/Ospitalean, (herria:).-----n, (kalea:).-----n,
(atenditu dudana pertsona:) jn./and.
atenditu dut. Jn./and. horrek urte ditu, (kalea eta zenbakia:.)
.....-n bizi da,
(herria:).-----n, (PK:), (Probintzia:.)-n, eta
bere telefonoa: da.

Honekin batera BIDALI DIZUT ustezko tratu txarreatik txosten medikoa.

Data eta sinadura

.....-KO GUARDIAKO INSTRUKZIO EPAITEGIA

TRATU TXARRENGATIKO TXOSTEN MEDIKOA

1) BIKTIMAREN FILIAZIO-DATUAK:

- Izena eta abizenak:
- Sexua: Emakumezkoa Gizonezkoa
- Jaioteguna: _____ / _____ / _____
- Egoera zibila:
- Helbidea:
-
- Kontaktatzeko telefonoa:

2) ASISTENTZIA ERAGIN DUTEN GERTAKIZUNEN AZALPENA (Biktimaren aitortpenaren arabera, ipini erasoak gertatu den data, ordua eta lekua, baita ikusten den tratu txar fisikoaren, psikikoaren edo bestelakoaren mota ere).

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3) AURREKARI PERTSONAL INTERESGARRIAK (Lesioei buruzkoak)

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

4) MIAKETA FISIKOA (Lesioak deskribatu –forma, tamaina, neurriak, kokapena eta kolorearen alde deskribatzaileak, argazkiak ateratzea gomendagarria delarik– eta gutxi gorabeherako data ere jarri).



5) GAUR EGUNEKO EGOERA EMOZIONALA

.....
.....
.....
.....
.....
.....

6) MIAKETA OSAGARRIAK (baleude)

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

7) DIAGNOSTIKOA

.....
.....
.....
.....
.....
.....

8) TRATAMENDUA

.....
.....
.....
.....
.....

9) JOKABIDE-PLANA ETA OHARRAK

.....
.....
.....
.....
.....

Data eta sinadura:

II. ERANSKINA: INFORMAZIOA JASOTZEKO EREDUA

Norberaren Datuak

Izen-abizenak
NAN Helbidea.....
..... Telefonoa.....
Helbidea edota harremanetarako telefonoa
Zure ardurapean dauden seme-alabak Adinak
Zure ardurapean dauden beste pertsonak
Ikasketa-maila Lanbidea.....
Diru-sarrerak.....
Etxebizitza (norberarena, alokatua, bestelakoak)
Oharrak (minusbaliatasuna edo bestelako aipamen garrantzitsurik):
.....
.....
.....

Erasotzailearen Datuak

Izen eta abizenak
Senidetasuna..... Ikasketa-maila
Lanbidea Ba al du buruko gaitzik edo droga-menpekotasunik?
.....
Bere jatorrizko familian tratatu txarrik jaso al zuen?.....
Erasotzaile gisa aurrekaririk ezagutzen al dira?.....
Pertsona bera edo beste norbait eraso zuen?

Erasoari buruzko datuak

Eraso mota (eraso sexuala edota tratatu txarrik; tratatu txar mota)
..... Eguna Ordua.....
Lekua..... Lekukoak
Eragindako lesioen deskribapena
.....
Osasun laguntzarik jaso al duzu?..... Eguna..... Osasun zentroaren izena..... Laguntza eman zizun profesionala
Aurretik laguntzarik eskatu al duzu?..... Non?
Salaketa egin al duzu?..... Ez egiteko arrazoia.....
.....
Noren aurrean?..... Nor lagundu zintuen?

III. ERANSKINA:
BIDALTZEKO TXOSTENAREN EREDUA

.....n dagoen.....Gizarte Zerbitzuen Zentroan,..... And.ari laguntza eman zaio,..... (e)n bizi dena, telefono zk.,.....urte..... NAN zk. eta, dena (egoera zibila).....

Interesdunak honako gertaera azaldu du: (zehaztu indarkeri mota, lekua, eguna, ordua eta erasotzailea identifikatzea eta dagoen senidetasun lotura)

.....
.....
.....
.....
.....

Honako jarduerak burutu dira:

.....
.....
.....
.....

Erakunde horretara bidalia izan da honako helburuarekin:

.....
.....
.....

Erakunde horrek garaturiko jardueren berri idatziz ematea eskatzen da.

.....n, 20.....ekoaren(e)an

Izp.: Interesduna

Izp.. Profesionala

IV. ERANSKINA:

ETXEKO TRATU TXARREN ETA ERASO SEXUALEN BIKTIMEI LAGUNTZEKO BALIABIDEAK ERKIDEGOAN

ARABA

A) LARRIALDIETARAKO ZERBITZUAK

- Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua

Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuak etxeko tratu txarren biktimek egiten dituzten segurtasun eta ostata izateko premiazko eskaerei erantzuten die. Aipatu Zerbitzua Vitoria-Gasteizko Udalaren menpe dago eta Arabako Foru Aldundiak bere zati bat finantzatzen du. Zerbitzu honen bidez biktimei premiazko laguntza ematen zaie eta dagokion laguntza baliabide edo harrerakoetara bidaliak dira. Araba Lurralde Historiko osoari ematen zaion zerbitzua da. 8:00etatik 22:00etara zuzeneko laguntza ematen duten langileak aritzen dira eta egunaren gainerakoan bilagailuaren bidez jarduten du.

Espainia Plaza z/g
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 134 444

- SOS-Deiak / 112

B) GIZARTE BALIABIDEAK

- Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua gure Erkidegoko gizarte zerbitzuen oinarrizko unitatea da. Bere eginkizunak, besteak beste, argibideak eman, beste zentroetara bidali eta pertsona erabiltzaileen beharretara egokitzen diren gizarte programa eta baliabideen erabilera kudeatzea dira. Hona hemen etxeko tratu txarren eta eraso sexualen biktimentzako dauden gizarte baliabideak: harrera-pisuak, orientazio juridikoa ematen duten zerbitzuak, laguntza psikologikoa emateko programak biktima eta bere erasotzaileentzat eta, azkenik, dirulaguntzak.

Gizarte Zerbitzuetara jotzea dagokion Udalaren bidez erabiliko dira.

- Vitoria-Gasteizko Udala. Berdintasunerako Zerbitzua

Zerbitzu honek, besteak beste, etxeko indarkeria eta eraso sexualen biktima diren Vitoria-Gasteizko Udaleko emakumeei laguntza espezializatua ematen die. Zerbitzuak kasu hauetan erabil daitezkeen gizarte baliaabideak eskaintzen ditu.

Etxanobe Etxea. Santa María, 11
Vitoria-Gasteizko Udala
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 161 345 eta 945 161 325

- Arabako Foru Aldundia. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, besteak beste, Berdintasunerako Aholkularitzaz eta Arabako landa eremuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuez arduratzen da. Handik, etxeko indarkeria eta eraso sexualen biktima diren emakumeei oinarrizko gizarte laguntza espezializatua ematea bultzatu eta koordinatzen du.

Diputazio, 13
01001 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 151 015

C) JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN LOTURIKO BALIABIDEAK

- Gau eta eguneko Epaitegia

Gasteiz Hiribidea, 18
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 004 849

- Fiskaltza

Gasteiz Hiribidea, 18
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 004 831

- Lege Medikuntzaren Euskal Erakundearen Zerbitzu Klinikoa

Gasteiz Hiribidea, 18
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 004 892

- Biktimari Laguntza Emateko Zerbitzua (BLEZ)

Zerbitzu hauek Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren menpe daude eta bere helburua delituen biktimei laguntza juridiko, psikologiko eta asistentziala ematea da, bidera litezkeen prozedura polizial eta judizialen esparruan.

Gasteiz Hiribidea, 18
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 900 180 414; 945 004 895

- Orientazio Juridikoko Zerbitzua (OJZ)

Abokatuen Elkargoaren menpe dagoen zerbitzua duzu. Honen bidez ofiziozko abokatu eskaerak eta doako justizia eskaerak tramitatzen dira.

Gasteiz Hiribidea, 18-2
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 004 896

- Atxilotuari Laguntza Emateko Zerbitzua (ALEZ)

Zerbitzu hauek Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren menpe daude. Bere helburua pertsona atxilotuari laguntza eta orientazioa ematea da, bideratu litezkeen prozedura polizial eta judizialen esparruan.

Gasteiz Hiribidea, 18
01008 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 004 894

BIZKAIA

A) LARRIALDIETARAKO ZERBITZUAK

- Larrialdietarako Zerbitzua

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak Lurralde Historiko osorako larrialdietarako zerbitzua du. Beronen bidez gizarteko zerbitzuen jarduera ordutegitik kanpo premiazko babesa eta ostatua behar duten etxeko tratu txarren biktimak Harrera Zentro batean babestuak dira.

Segurtasun arrazoiak direla eta, baliabide hau Ertzaintzaren bidez lortzen da.

- Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua

Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuak etxeko tratu txarren biktimak egiten dituzten segurtasun eta ostatua jasotzeko premiazko eskaerei erantzuten die. Bilboko Udalaren menpe dago. Bertan biktimei premiazko lehen laguntza ematen zaie eta dagokion baliabide asistentzial edo harrerazkoetara bidaliak dira. Zerbitzu hau Bilboko udalerrri osoari zuzendua dago. 8:00etatik 22:00etara zuzenean laguntza ematen duten langileak ari dira eta egunaren gainerakoan bilagailuaren bidez.

Elejabarri Aterpetxea
48007 Bilbao
Tel.: 944 701 459 eta 944 701 460

- SOS-Deiak / 112

B) GIZARTE BALIABIDEAK

- Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan gure Erkidegoko gizarte zerbitzuen oinarrizko unitatea da. Bere zerbitzua biztanle guztiei eskaintzen die. Bere eginkizunak, besteak beste, argibideak eman, beste zentroetara bidali eta pertsona erabiltzaileen beharretara egokitzen diren gizarte programa eta baliabideen erabilera kudeatzea dira. Hona hemen etxeko tratu txarren eta eraso sexualen biktimentzako dauden gizarte baliabideak: harrera-pisuak, orientazio juridikoa ematen duten zerbitzuak, laguntza psikologikoa emateko programak biktima eta bere eraso-tzaileentzat eta, azkenik, dirulaguntzak.

Gizarte Zerbitzuetara jotzea dagokion Udalaren bidez egingo da.

- Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintzarako Saila. Emakumearen Atala

Zerbitzu honek, besteak beste, etxeko indarkeria eta eraso sexualen biktima diren Bizkaia Lurralde Historikoko emakumeei laguntza espezializatua ematen die, Zerbitzuak kasu hauetan erabil daitezkeen gizarte balia bideak eskaintzen ditu.

Ugasko Bidea, 3-2.. Plaza Eraikina.
48014 Bilbao
Tel.: 944 208 000 eta 944 206 900

- Bilboko Udala. Emakumearen Zerbitzua

Zerbitzu honek, besteak beste, etxeko indarkeria eta eraso sexualen biktima diren Bilboko Udaleko emakumeei laguntza espezializatua ematen die, Zerbitzuak kasu hauetan erabil daitezkeen gizarte balia bideak eskaintzen ditu.

Ernesto Erkoreka Plaza
48007 Bilbao
Tel.: 944 204 838

C) JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN LOTURIKO BALIABIDEAK

- Gau eta eguneko Epaitegia

Ibañez de Bilbao, 3
48001 Bilbao
Tel.: 944 016 481

- Fiskaltza

Buenos Aires, 6-5. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 016 480

- Lege Medikuntzaren Euskal Erakundearen Zerbitzu Klinikoa

Buenos Aires, 6
48001 Bilbao
Tel.: 944 016 484

- Biktimari Laguntza Emateko Zerbitzua (BLEZ)

Zerbitzu hauek Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren menpe daude eta bere helburua delituen biktimei laguntza juridiko, psikologiko eta asistentziala ematea da, bidera litezkeen prozedura polizial eta judizialen esparruan.

Buenos Aires, 6
48001 Bilbao
Tel.: 900 400 028; 944 016 487

- Orientazio Juridikoko Zerbitzua (OJZ)

Abokatuen Elkargoaren menpe dagoen zerbitzua duzu. Honen bidez ofiziozko abokatu eskaerak eta doako justizia eskaerak tramitatzen dira.

Barroeta Aldamar, 10
48001 Bilbao
Tel.: 944 016 712

- Atxilotuari Laguntza emateko Zerbitzua (ALEZ)

Zerbitzu hauek Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren menpe daude. Bere helburua pertsona atxilotuari laguntza eta orientazioa ematea da, bideratu litezkeen prozedura polizial eta judizialen esparruan.

Buenos Aires, 6
48001 Bilbao
Tel.: 944 016 485

GIPUZKOA

A) LARRIALDIETARAKO ZERBITZUAK

- Larrialdietarako Zerbitzua

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzu Sailak Lurraldeko Udalen laguntzarekin Lurralde Historiko osorako larrialdietarako zerbitzua antolatu du. Honen bidez gizarteko zerbi-tzuen ordutegitik kanpo premiazko babes eta ostalari behar duten etxeko tratu txarren biktimak hitzarturiko ostalaritza-establezimenduetan sartzen dira.

Segurtasun arrazoiak direla eta, baliabide hau Ertzaintzaren bidez lortzen da (SOS-Deiak 112).

- SOS-Deiak / 112

B) GIZARTE ZERBITZUAK

- Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan gure Erkidegoko gizarte zerbitzuen oinarrizko unitatea da. Bere zerbitzua biztanle guztiei eskaintzen die. Bere eginkizunak, besteak beste, argibideak eman, beste zentrotara bidali eta pertsona erabiltzaileen beharretara egokitzen diren gizarte programa eta baliabideen erabilera kudeatzea dira. Hona hemen etxeko tratu txarren eta eraso sexualen biktimentzako dauden gizarte baliabideak: harrera-pisuak, orientazio juridikoa ematen duten zerbitzuak, laguntza psikologikoa emateko programak biktima eta bere eraso-tzaileentzat eta, azkenik, dirulaguntzak.

Gizarte Zerbitzuetara jotzea dagokion Udalaren bidez egingo da.

- Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Ongizaterako Saila

Sail honetatik etxeko tratu txar eta eraso sexualen biktimentzako gizarte zerbitzuen sistemaren baliabideak antolatu eta koordinatzen dira. Aipatu baliabideak kudeatzeaz Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak arduratzen dira. Hala ere, Gipuzkoa Lurralde Historikoan erroldatuak ez dauden biktimen, eta besterik ezean, biktima datorren udalerrian oztoporik badago, eskaria eran-tzungo da eta baliabideak kudeatuko dira.

Zarategi Ibilbidea, 99 – Txara II Eraikina
20015 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 482 576; 900 434 343

- Donostiako Udala. Emakumearen Zerbitzua

Zerbitzu honek, besteak beste, etxeko indarkeria eta eraso sexualen biktima diren Donostiako Udaleko emakumeei laguntza espezializatua ematen die. Zerbitzuak kasu hauetan erabil daitezkeen gizarte baliabideak eskaintzen ditu.

Urdaneta, 13-3.
20006 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 481 413

C) JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIN LOTURIKO BALIABIDEAK

- Gau eta eguneko Epaitegiak

San Martín, 41
20007 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 000 720

- Fiskaltza

San Martín, 41
20007 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 000 703

- Lege Medikuntzaren Euskal Erakundearen Zerbitzu Klinikoa

San Martín, 41
20007 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 000 705

- Biktimari Laguntza Emateko Zerbitzua (BLEZ)

Zerbitzu hauek Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren menpe daude eta bere helburua delituen biktimei laguntza juridiko, psikologiko eta asistentziala ematea da, bidera litezkeen prozedura polizial eta judizialen esparruan.

Manterola, 13
20007 Donostia-San Sebastián
Tel.: 900 100 928; 943 474 517

- Orientazio Juridikoko Zerbitzua (OJZ)

Abokatuen Elkargoaren menpe dagoen zerbitzua duzu. Honen bidez ofiziozko abokatu eskaerak eta doako justizia eskaerak tramitatzen dira.

Larramendi, 1
20006 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 451 540

- Atxilotuari Laguntza Emateko Zerbitzua (ALEZ)

Zerbitzu hauek Eusko Jurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren menpe daude. Bere helburua pertsona atxilotuari laguntza eta orientazioa ematea da, bideratu litezkeen prozedura polizial eta judizialen esparruan.

San Martín, 41
20007 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 000 769

AGINTE JUDIZIALAREN
KONTSEILU GORENAREN
ETXEKO INDARKERIARI
AURRE EGITEKO JARDUNEN
GIDA PRAKTIKOA

* Erakunde arteko Akordioa egin eta gero, Aginte Judizialaren Kontseilu Gorenak, 2001eko martxoaren 21eko Akordioaren bidez, *Informe sobre la problemática derivada de la violencia doméstica* onetsi zuen. Bertan, *Guía práctica de actuación contra la violencia doméstica* (Etxeko indarkeriari aurre egiteko jardunen Gida praktikoa) testua jasotzen da. Eremu judizialaren gainean Akordioan adierazten dena osa-tzearren, atal honetan aipatu Gida praktikoa hitzez hitz jasotzea egokia iruditu zaigu.

Behar beharrezkoa da gure lege antolamenduan etxeko indarkeriari buruzko arauak alda-tzea; esate baterako, aurreko atalean aipatutako aldaketak egitea. Hala ere, horrek ezin du inolaz ere esan nahi gaur egun indarrean dauden arauen bidez ere horrelako erasoei zorrotzasunik handienarekin aurre egin behar ez diegunik.

Gainera, Kontseilu honek badaki bulego judizialaren eguneroko jardunean han eta hemen zenbait aldaketa sarturik, etxeko erasoak jasan dituzten herritarrei eskainitako zerbitzuko kalitatea hobe daitekeela. Ondorio horixe ateratzen da, ezbairik gabe, Ikuskaritza Zerbitzuak egindako laginketaren emaitzetatik. Hitzarmen honen eranskinean ikus ditzakezu laginketaren emaitzak.

Horregatik, bada, Aginte Judizialaren Kontseilu Gorenak, jurisdikzio organoen independentziari dion errespetu osoarekin, eta aginte judizialaren gobernu organo gorena den aldetik, beharrezkotzat jo du jardun ildoen katalogoa sortzea, etxeko erasoak desagerrarazten lagun-tzeko asmoz. Jardun ildoak orientazioak emateko dira, soilik; baina, ildo horiei esker, erasoei aurre egiteko borrokan orain arte lortutako emaitzak hobetu ahal izango dira, epaitegi eta auzitegien eguneroko jardunean aintzat hartzen badira behintzat. Horrez gain, Aginte Judizialaren Kontseilu Gorenak 1978ko Espainiako Konstituzioko 9.2 artikuluan jasotako araua benetan betetzea erdietsi nahi du. Artikulu horretan araututa dagoenez, botere publikoak beharturik daude gizabanakoaren eta gizabanako taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen lortzeko neurriak sustatzera. Orobat, beharturik daude askatasuna eta berdintasuna erabatekoak izatea eragozten duten oztopoak kentzera, eta herritar guztiek politikan, ekonomian, kulturen eta gizartean parte har dezaten erraztera.

Betiere independentzia judiziala zeharo errespetatuta, Kontseiluak egokitzen jo du gida bat onartzea, Prozedura Kriminaleko Legean jasotako jurisdikzio jarduneko irizpideak ordenatuta azaltzeko. Gida horretan, beraz, lehendik dauden irizpideak errepikatuko dira, eta praktikari loturiko azalpen zehatzagoak emango. Irizpide horiek bildu eta sistematizatu egingo dira, modu erabilgarriagoan jasota; horrela, jurisdikzio organoen eraginkortasuna indartu nahi dugu. Ekimen hau, bestalde, dinamika batean txertaturik dago; etxeko indarkeriaren gizarte gaitzari modu eraginkorragoan aurre egiteko egin diren hitzarmenen dinamikaren barruan, alegia. Dinamika horrek bultzatuta, hain zuzen, Kontseiluak, Estatuak, autonomia erkidegoek, eta beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuek —bai banaka, bakoitzak bere aginpideak betez, bai elkarren arteko lankidetzan— protokoloak egin eta ekintza planak onartu dituzte.

Beraz, Prozedura Kriminaleko Legean onartutako jardun irizpideak honela sistematiza daitezke:

1. GUARDIAKO EPAITEGIETAN EGIN BEHARREKO JARDUNAK

TRATU TXARRENGATIK AURKEZTUTAKO SALAKETAK JASOTZEA

— Salaketa ahoz egitea komeni da, eta ahal bada, grabatzeko ikus-entzunezko baliabideak erabiltzea. Gainera, salaketa epailea eta fiskala aurrean direla egitea komeni da, eta salatutakoa idatziz jasotzea.

— Lehenbailehen, salaketaren berri eman behar zaio Ministerio Fiskalari, horrek hasiera-hasieratik biktimari laguntza eman diezaion, eta salaketa egiteko orduan nahiz ondorengo eginbideetan bertan egon dadin.

— Era berean, Biktimari Laguntzeko Bulegoan ere lehenbailehen eman behar da gertatutakoaren berri.

— Salaketa jasotzean, laguntza teknikoa eta juridikoa emango zaio biktimari. Eta, hala badagokio, doako laguntza juridikoari buruzko arauetan onartutako baliabideak eta mekanismoak erabiliko dira.

— Dagokion fiskaltzan, premiarik handienaz eskuratu behar dira etxeko indarkeriaren erregistro informatikoan salataileari eta salatuari buruz dauden aurrekariak.

GERTAKIZUNETAN TARTEAN SARTUTA DAUDEN PERTSONEN AZTERKETA

— Benetan garrantzitsua da guardiako epaileak agin dezan biktimak eta ustezko erasotzaileak ahal bezain laster bere aurrean agertzeko. Gainera, ahal bada behintzat, lekukoak ager daitezen ere agindu beharko luke, behar izanez gero poliziaren laguntza eskatuta.

— Lehenbailehen egin behar zaie mediku azterketa —fisikoa nahiz psikologikoa—, bai biktimari bai erasotzaileari.

— Berehala agindu behar da hasierako premiazko txosten bat egitea, baldin hori egiteko aukerarik badago eta gizarte zerbitzuetan aurrekaririk badago. Behar izanez gero kautelazko neurriak hartu daitezen, txostenean jasoko dira gizarte egoera, egoera ekonomikoa, lanekoa eta bestelako datuak.

BIKTIMAREN AITORPENA

— Biktimak epaileari egindako aitorpenean, arreta berezia eman behar zaio honako datuak azaltzeari: ea lehenago erasorik izan den; salatutako erasoak zein egoeratan gertatu zen; aztarnarik dagoen; salaketa egin duen biktimari eta familiako kideei zer-nolako ondorio fisikoak eta psikologikoak sorrarazi dizkion, eta haien ondasunetan zer-nolako eragina izan duen; erasoaren lekukoaren identifikazio datuak; eta biktimaren ustez ea zein neurri hartu behar diren bera babesteko.

SALATUAREN AITORPENA

— Salatuak inputatu gisa aitorten osoa egitea komeni da. Aitorpenean, honako gai hauek direla eta zer dioten jasota: ea, salatuaren esanetan, salatutako erasoak egiaz gertatu den; salatuak gertaerei buruz emandako bertsioak; erasoak zergatik gertatu den; salatuak aldeztu aurretik erasorik bizi izan duen familian; eta kasu horretarako esanguratsuak diren bestelako datuak, hala nola, drogen menpekotasunik edo alkoholismorik baden.

FROGAK JASOTZEA

— Poliziei aginduko zaie berehala jaso ditzaten salaketan azaltzen ez diren erasoaren frogak eta aztarna guztiak. Orobat, biktimaren aitortzea aurkeztu beharko dute (sarritan atzera egiten baitu epaketan), eta azterketa fisikoa egin. Horretarako, hala behar izanez gero, dagokion sarrera eta erregistratze agindua eskatu beharko da, kasu zehatz horretarako behar bezala oinarrituta.

— Froga-jasotzea dokumentatzeko, atestatuetakoa ohiko idatzien ordean, ikus-entzunezko baliabideak erabiliko, ahal denean. Izan ere, froga zehatzagoak eta eraginkorragoak dira.

— Frogak eta ikus-entzunezko nahiz idatzizko dokumentuak berehala utzi behar dira guardiako epaitegian.

KAUTELAZKO NEURRIAK HARTZEA

— Jardun horiek guztiak eginda, eta ekintza horien, aitortzen eta txostenen ondorioak aztertu eta gero, guardiako epaileak erabakiko du auto baten bidez kautelazko neurriak hartu edo ez, eta hartuz gero nolako neurriak hartu behar diren. Horretarako, kontuan izango da ea erasotzailea arriskutsua den, salatutako ekintzaren larritasuna, eta ea biktimak nahiz haren familiakoek babesik behar duten.

— Autoak behar adina motibatua eta oinarritua izan behar du, kasu jakin horri dagokionez. Saihestu egin behar dira formula estereotipatuak; hartutako neurrien proportzionaltasuna modu

egokian arrazoitu behar da; eta neurririk ez hartzea erabaki bada (batez ere, biktimak eskatu bazituen), erabaki horren zergatiak xehetasunez azaldu.

— Hartutako kautelazko neurriak (prebentziozko espetxeratzea; Prozedura Kriminaleko Legeko 544. artikuluko debekuak; armak atzitzea; salatuaren apud acta agerraldiak, kasu horretako inguruabarren arabera maiztasunaz; biktimari polizia babes ematea, babes fisikoa; eta abar) epaileak berak jakinaraziko dizkie biktimari eta salatuari. Salatuari, legez dagozkion oharrak eta prebentzioak egingo dizkio.

GUARDIAKO EPAITEGIAK JARDUNDAKOA BIDALTZEA

— Guardiako epaitegian egindako lehen eginbideak amaitu eta gero, jardundako guztia premiaz bidali beharko dute epaitegi espezializatura; edo, hala badagokio, epaitegi dekanora, bana dezan.

— Bidaltzean, eginbideen portadan, karatula batean jarriko da «PRESAKOA: ETXEKO INDARKERIA», erraz irakurtzeko moduan eta kolore biziz.

2. BANATZEKO ARAUAK

— Epaitegi espezializaturik ez badago, banatzeko arau hauek onartzea lortu behar da: prozesu egoera gorabehera, subjektu berak familia horretako kideei aurretik egindako erasoen berri izan zuen lehen epaitegiari kasuaren gaineko eskumena emango dioten arauak, alegia.

— Auzi horiek ahalik eta lasterren banatu behar dira, lehentasun handienarekin, eta azalean «PRESAKOA: ETXEKO INDARKERIA» errotulua dutela.

3. AUZITEGI NAHIZ EPAITEGIETAN BIKTIMARI EMATEN ZAION TRATUA

— Delitu hauen biktimei justizia egoitzetan ematen zaien tratua bereziki arretatsua izan behar da uneoro. Izan ere, erasoan jasandako kalteei ez zaie gehitu behar «erakundeek eragindako biktimizazioa».

— Biktimekin erabiltzen den hizkera, haiek erraz ulertzeko modukoa izan behar da. Beharrezkoa edo komenigarria izanez gero, interpreteak erabili.

— Biktimen zitazioetan, ez da erabili behar agindu kutsuko adierazpenik edo beldurra sor-tzeko modukorik. Parte hartzera bultzatu behar da biktima, eta bera epaiketan agertzea beharrezkoa dela azpimarratu behar zaio.

— Lehen unetik beretik, biktimei behar duten laguntza eskaini behar zaie; zuzenbideko, psikologiako, gizarteko eta ekonomiako laguntza. Lehenbailehen erasoaren berri eman behar da Biktimari Laguntzeko Bulegoan (halakorik izanez gero). Eta, beharrezkoa bada, biktimei babesa emateko berehala esku hartzeko eskatu profesionali, erakundeei, agintariei eta funtzionarioei.

— Biktimei lehenbailehen jakinarazi behar zaizkie eragiten dieten prozesuko erabaki guztiak. Batez ere, ustezko erasotzaileari buruzko kautelazko neurriak hartzearen edo altxatzearen gaineko erabakiak, edota biktima nahiz haren familia babestearen gainekoak.

4. SALATZAILEAREN ETA SALATUAREN ARTEKO HARREMANAK

— Ahal den heinean, saihestu egin behar da biktimak eta ustezko erasotzaileak justizia egoitzetan topo egitea.

— Biak elkartzea ezinbestekoa bada, arreta berezia eman behar zaio biktimari. Lekukoak babesteko legean xedatutako baliabideak erabiliko dira, eta biktimari bakarrik ez dagoela sentiaraziko dion guztia egingo.

— Ezinbestekoa da biktima babestearren kautelaz edo behin betiko hartzen diren neurriak zehatz-mehatz betetzea. Horretarako, aginte judiziala eta Ministerio Fiskala, poliziako agintari eta funtzionarioak, eta behar diren gainerako erakunde eta agintariak koordinatzea bideratu behar da.

— Salatzaileak eta salatuak epaitegitik kanpo harremana izatea ezinbestekoa bada (esaterako, seme-alabak bisitatzeko erregimena apiklatzeagatik), elkartzeko toki seguruak zehaztuko dira, judizialki. Gainera, behar izanez gero, biktimak laguntzaileak izango ditu, eta laguntza eskainiko zaio.

— Zigor arloko epaiketan, eta, halakorik izanez gero, epaiketa zibilean, erabat isilean gorde behar dira biktimaren etxebizitzari buruzko datuak; behin-behineko ostatutzat duen bizitokiaren kokalekua, eta lantokiarena; eta biktimaren nahiz haren familiakoen segurtasuna arriskuan jar dezakeen edota erasotzaileak aurkitzea eragin dezakeen beste edozein datu. Horretarako, haiek babesteko beharrezko neurriak hartuko dira. Kontua izan behar da prozesuko egintzen dokumentuetan, arriskurik ekar dezakeen ezer ez aipatzeko.

5. ZIGOR ARLOKO EPAIKETAN ETXEKO INDARKERIARI AURRE EGITEKO BESTELAKO NEURRIAK ETA JARDUNAK

— Arreta berezia jarri behar da ea kasu horretan arrisku-faktore gehigarriak (alkohola, drogak, armak) baden, familiako tratu txarretan ohikoak baitira. Behar diren kautelazko eta behin betiko neurriak hartu.

— Komeni da kartzela ez den beste aukera arrazoizko eta bidezko batzuk bultzatzea: behin-behineko askatasuna, apud acta agerraldiarekin; ustezko erasotzaileak medikuaren eta tratamendu taldeen azterketak onartzea (erasotzailea konbentzitzen saiatu beharra dago, horretarako baimena eman dezan); urruntze neurriak, benetan betetzen direla ziurtatuz (poliziar horretarako behar diren aginduak emango zaizkio). Gainera, poliziak epaileekin eta Ministerio Fiskalarekin koordinaturik egon behar du.

— Arazoak konpontzeko, beste aukera batzuk ere bultzatu behar lirateke (bitartekaritza, adibidez), bi baldintza hauek gertatzen direnean: a) eraso larria ez izatea; b) pertsonak berez nahiz familian eta gizartean duen egoeragatik, bide hori komeni izatea eta familiako edo bikoteko harremana mantentzea posible izatea.

— Oso baliagarria da epaileen batzordeetan jardun ildo batzuk prestatzea, eta epaiketetan horiei jarraitzea, biktimak atzera egin ez dezan eta epaiketara ez joateko erabakia har ez dezan. Jardun ildo horien baitan sartu behar dira, besteak beste, biktimaren lekukotasunaz gain, bestelako frogak ere bilatzeko ahalegin guztiak egitea; eta, biktima agertzen ez bada, epaiketa bertan behera uztea, biktimak epaiketara ez agertzeko dituen arrazoiak aztertzea, eta epaiketarako beste dei bat egitea.

— Horrelako auzietan, epaiketak atzeratzea galarazi behar da; eta, legeak ahalbidetzen duenean, epaiketa lasterrak egin, frogak gal ez daitezen eta biktima babesik gabe gera ez dadin.

— Oso egokia litzateke sententzietako egitate frogatueta eta prozedurari amaiera ematen dioten jurisdikzio organoen gainerako ebazpenetan biktimari eta salatuari eragin diezaieketen datu interesgarrien kontaketa kontuan hartzea.

— Oso kontuan hartu behar da erasotzaileari isuna jartzeak larriagotu egin dezakeela biktimaren egoera, zeharka bada ere.

6. EZKONTZA DEUSEZTATZEKO, BANANTZEKO ETA DIBORTZIATZEKO EPAIKETA ZIBILA ETA TRATU TXARREN EPAIKETA PENALA KOORDINATZEA

— Ezkontza deuseztatzeko, banantzeko eta dibortziatzeko prozedurak bideratzen dituzten epaitegi zibiletatik datozen datuak berehala eraman behar dira dagozkion fiskaltzara. Batez ere, fiskaltza guztietan etxeko indarkeriari buruz dagoen informatika erregistroan lehenbailehen sartzeko datuak direnean.

— Behar-beharrezkoa da arlo zibileko eta zigor arloko epaitegien arteko koordinazioa areagotzea. Batez ere, aldi berean ezkontza deuseztatzeko, banantzeko edo dibortziatzeko epaiketa zibilak eta tratu txarren zigor epaiketak bideratzen direnean, epaitegi horietako bakoitzak bere aldetik hartutako kautelazko neurriei dagokienez.

— Etxeko tratu txarrei lotutako epaiketa zibiletan, oso baliagarria izan daiteke epaileak aldeei ematen dien entzunaldia bultzatzea, kautelazko neurriak hartu baino lehen egoera hobeki ezagutzeko.

Eta hori idatziz jasota geldu dadin, honako hau sinatu dut Madrilén, bi mila eta bateko martxoaren hogeita batean.